

Familiantzako gutuna

Familia maiteak:

Abendualdi denporara hurbiltzen ari gara, Gabonetarako prestetan gaituen itxaronaldi eta itxaropen debora. Bide honetan lagundu gura deutsuegu **familian bizitzeko** pentsautako material bategaz, alkarriketarako uneak, otoitzak eta kinu errazak sortuz, aste hauetako benetako zentzuna aurkitzen laguntzeko.

Lau astez, honako hau proposatzen deutsuegu:

- **Bineta honek** Ane eta bere familia protagonista dauzan istorio bat kontetan dau, gogoeta egitera konbidatzen gaituen eguneroko egoegaz.
- Etxean alkarregaz irakurtzeko **mikrokontakizun bat**, eszenari bizia emoten diona eta aste bakotzeko gako-hitzagaz bat egiten dauena: *Itxaropena, Harrera, Poza eta Maitasuna*.
- Familian berba egiteko **galdera iradokitzaileak**.
- **Elementu ebakigarri bat** (kandela, bihotza, gozokia eta hazia) zuen Jaiotzan jartzeko, bizitakoaren sinbolo gisa.
- Familian partekatzeko **otoitz erraza**.

Ibilbide hau **Bizkaiko Caritasen Gabonetako kanpainan amaitzen da: “NaVIDAd en COMUNidad – Bizi Batera”**, komunitatea aniztasunetik eraikitzen gaituena. Bertan, Caritasak bideo bat aurkeztuko dau. Bideo horretan, gure binetetan agertzen diran pertsonak, besteak beste, objektuak eramango dabez jaiotzara. Gainera, “Hutsunea jaiotzan” izeneko ipuin bat hurbilduko digute, eta geure ipuina idaztera animatuko gaituzte, erroskoi solidarioaren egunean sarituak izango diren kontakizunen lehiaketa batean parte hartzeko.

Sakoneko ideia argia da: **komunitatea aniztasunetik eta maitasun partekatutik eraikitzen da**. Keinu bakoitzak, hitz bakoitzak, etxean lantzen dugun sinbolo bakoitzak prestatzen gaitu Gabonak topaketa eta elkartasun esperientzia gisa bizitzeko.

Eskerrik asko zuen seme-alabei bide honetan laguntzeagatik. Abendualdi hau itxaropena pizteko, bihotza zabaltzeko, poza partekatzeko eta maitasuna ereiteko aukera gisa bizitzea.

Maitasunez,

Fede-zabalkunde eta Katekesirako Ordezkaritza
eta
Caritas Bizkaia